

2002-02-03
kioskoa

Agurtzane Ormaetxea

Intsumisioa
eta Oteiza

Derrigorrezko zerbitzu militarren eta ordezkari giza prestazioaren aurkako delituak Espainiako Gobernuak zigorgabetu izana txalotu zuten atzo Euskal Herriko idatzizko hedabide askok. Erabakiari ongi-egorria ematearekin batera, *berandu* etorri dela azpimarratu zuten. Bate-tik, gizartearen gehiengoak aspaldi egin zuen berea intsumisioaren aldeko borroka. Bestetik, joan den abenduaren 31n amaitu zen soldadutza, eta zigortutako batzuek hila-betetako kartzelaldiak bete behar izan dituzte, desagertzeko zorian zegoen delitu batengatik.

«Mugimendu antimilitaristen garaipen» gisa aurkeztu zuen berria *Deia*-k: «Urteetan defenditu zuten kontzientzia eragozpena eta intsumisioa derrigorrezko zerbitzu militarren aurka borrokatzeko, eta ondorioak pairatu zituzten horregatik». *El Diario Vasco*-k, berriz, legearen «atzeraeranginkortasuna» nabarmendu zuen: «Antezedente penalak kenduko zaizkie 4.000 inguru intsumisio zigortu edo auzipetuei». Eta espetxean dauden zazpi «desertoreak» ere aske gertuko dira.

Bestalde, Jorge Oteiza Fundazioaren inguruko «ikuskizuna» deitoratu zuen *Diario de Navarra*-k. Egunkariaren arabera, baliteke noizbait egia osoa argitzea. Baina, gaur, dagoena da «eztabaida gaitzesgarri batean lokaztutako erakunde baten ikuskizun lotsagarria, susmo asko baitago auzian itzal asko ote dauden». Eta, antza, komunikabidearen irudiko, Nafarroago Gobernuak da itzal horietako bat: «'Nafarroako herriari' eman zitzaion [Oteizaren obra]. Ez dirudi bere ordezkariak eskuartean zuten auzia era egokian eraman dutenik».

balkoia

Martxelo Otamendi

Beste mundu bat

Bizitzeko daukagun mundu hau *kudeatzeko* bi eredu nagusitu —eta kontrajarri— dira azken hamarkada honetan, biak egunotan New Yorken eta Porto Alegren irudikatua.

Ekialde komunistaren eredu erori zenean, indarrean dagoen sistema ordezkatzeko lanetan umezurtz geratu ziren bateko eta besteko indar progresistak. Ezker klasikoa *krisian* sartu zen, eta ez da oraindik krisi horretatik aterra. Ezker *katedratikoa* krisiaren gaineko gogoeta —sakona noski— egiten ari zen bitartean, azken urteetako nazioarteko panorama eta jardun politikari aire berria eta berritzailea ekarri dion mugimendua hasi zen osatzen. Hobeto esanda, mugimenduen mugimenduaren sarea hasi zen osatzen.

Tradizio eta kultur politika desberdin asko, ordura arte lanean elkarrekin jarri gabekoak, langintza komuna lantzen hasi ziren, ezkerreko alderdi klasikoak aho bete tesi utziz. Herri indigenen eskubideak berreskuratu nahi dituztenak, ekologistak, feministak, unibertsitate modernoetan ikasitako informatiko alternatiboak, Europa zaharreko hirietako urbanitak... ordura arte nor bere aldetik ibilitakoak biltzen hasi ziren, *mundutarrei* egin beharreko eredu proposamenetan hirugarren bidea bat (ez Clinton eta Blairrena) antola zitekeela erakutsiz.

Manikeismo errazak alde batera utzita, bada elementu bat hirugarren bide

MUNDUKO FORO SOZIALA

Porto Alegren bildutako tribuen lehen asmoa mundutarren arteko harmonia da

INTSUMISIOAREN BIDEA

Ikus dezagun duela hamar urte non zen soldaduskaren aurkako mugimendua eta non den egun

horri belaunaldi gazteen artean erakar-garritasuna jariarazten diona: mundu honetaz jabetu nahi ez izana. Aurreko eskeman —eskuina eta ezkerre—, biek zuten mundua gobernatzeko asmo ez-kutaezina. Modu batera edo bestera, baina biek amesten zuten munduko errepublika (edo monarkia) bakarrean; eta, bistan da, haiek agintari.

Egunotan Porto Alegren biltzen diren tribuen lehen asmoa mundutarren arteko harmonia da. Harmonia nazioarteko harremanetan, garabideetan, oinarrizko eskubideetan, ondasunen banaketan... Besteari irabaztea, beste-enaz jabetzea, bestearena oztopatzea, besteak morroi izatea, nagusia izatea... baztertu beharreko estrategia eta kontzeptuak dira.

Intsumisioa eta desobedientzia

Porto Alegren intsumisio bat baino gehiago harrapatuko zuen Espainiako Gobernuak intsumisioa zigorgabetu eta ezarritako zigorrak balio gabetzeko hartutako erabakiak.

Espainiako zein Frantziako armaden kontrako sentimendua oso aspaldikoa da Euskal Herrian, baina intsumisioek, beldurra alde batera utzita, ukiezin zirudien *mamu handiari* aurre egiteko adorea izan zuten. Etxean arazoak, arazoak Poliziarekin, zatiketa saioak, epaiketak, espetxea, lana topatzeko zailtasuna... garaipena. Mugimendua hasi bezain agudo galdu zuen *gerra* Espainiako Armadak, gazteek berehala sinetsi baitzuten irabaz zezaketela, eta geldiezina bihurtu zen *erre-bolta*.

Nola aurre egin euskarak jaso ohi dituen eraso etengabeei, nola ez galdu Paris eta Madril bidean xahututako gure diruak, nola lortu euskal esparru ekonomikoa, nola lortu... Hausnar dezagun azken hamar urteotan zer nolako erantzuna eman duten soldaduskara joan behar zuten gazteek, zein nolako babesa eman zuten gizarteak, nola erreakzionatu zuten bi armadek, bi justiziek, bi gobernuak, bi estatuek, eta ikus dezagun duela hamar urte non zegoen soldaduskaren kontrako mugimendua eta non dagoen egun.

Intsumisioek *Ez* erantzun zuten, *Ezetz*, eta Hegoaldekoak jada ez doaz Armadara.

martintxo



Egunkaria

3.466. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uria

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72664 E Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENAORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabxe Monasterioa, 45-13.esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511